

Hiri Hondakinak Hego Euskal Herrian

Egoeraren azterketa eta proposamenak



www.ela.eus


ELA
EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

Sortutako hiri hondakinaren bilakaera.....	3
Hiri hondakinak kudeatzeko tratamenduak.....	4
Datuak herrialdeka.....	8
Ondorioak eta proposamenak	16

1. SORTUTAKO HIRI HONDAKINEN BILAKAERA

Hondakinaren kudeaketa iraunkorraren lema ezagunenetakoa da “hondakinik onena sortzen ez dena”. Horregatik, garrantzitsua da Hego Euskal Herrian sortzen ditugun hondakin kopuruak ezagutzea. Ditugun datuak 2018 artekoak dira, eta ondorengo taulan ikus dezakegu azken urteetan sortutako hondakin kopuruak izan duen bilakaera. Hego Euskal Herri osoan tendentzia bera ageri da, sortzen dugun hondakin kopurua mantentzen ari da. Institutioek hondakinaren murrizketarako hartzen dituzten neurriak edo egiten dituzten kanpainak ez dute eraginik izan.



(Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua)

Kontuan izan behar da Europar Batasunak 2018ko Hondakinaren Zuzentarauan murrizketa helburuak finkatu zituela. 2010ean sortutako hondakinak kontuan hartuta, 2020rako sortutako hondakin kopuruak %10 murriztu behar dira, eta 2025erako %13a. Ondorengo taulan 2010-2018 artean HEHan sortutako hondakinaren bilakaera ikus dezakegu:

	2010-2018
Araba	+%4,4
Bizkaia	+%11,4
Gipuzkoa	+%13,5
Nafarroa	+%0,7

(Iturria: Eustat eta Nafarroako Gobernua)

Argi ikus dezakegu azken hamarkadan hondakinek beherantz egin beharrean gorantz egin dutela eta ez dela 2020ko helbururik beteko. Hondakinen kudeaketan aldaketa izugarria behar dugu.

2. HIRI HONDAKINAK KUDEATZEKO TRATAMENDUAK


2.1. Konpostatzea

Hondakin organikoak tratatzeko modurik eraginkorrena eta iraunkorrena konpostatzea da. Horretarako modu ezberdinak daude: etxean egitea, auzokonpostatzea eta bilketa selektiboan jasotakoa konpostatze gunetara eramatea. Hiru bide izanik, HEHan ditugun konpostatze datuak oso eskasak dira:

(%)	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Araba	0	2,4	3,06	4	3,12	4,36
Bizkaia	0,76	0,96	0,98	1,12	1,31	1,75
Gipuzkoa	5,6	8,38	10,17	11,17	13,05	14,06
Nafarroa	8,7	9,7	11,2	12,7	12,8	14

(Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua)

Hego Euskal Herrian egin diren errefusaren karakterizazio lanek ondorioztatu dute sortutako hondakinen %50 inguru dela materia organiko konpostagarria. Beraz, oraindik asko dago egiteko konpostatzea areagotzeko. Gipuzkoan eta Nafarroan ahalegin handiak egin dira eta datuetan ikus daiteke %14ra iritsi direla dagoeneko. Ondorengo taulan ikusi daiteke herrialde bakoitzaren bilakaera:



(Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua)

Esan bezala, Gipuzkoa eta Nafarroa dira materia organikoa konpostatzeko ahalegin handiena egin dutenak. Araban 2014an hasi ziren organikoaren bilketa selektiboarekin eta urtez urte hobetzen ari da. Bizkaian berriz oso baxu mantentzen da konpostatzen den materia organikoaren portzentaia, ia aldaketarik gabe.

Europar Batasunak hondakin organikoekiko ezarri duen helburua, 2024rako hondakin organikoen bilketa selektiboa leku guztietara iristea da. Hego Euskal Herrian organikoaren bilketa oso zabalduta egon arren oraindik ez da leku guztietara iristen, eta bilketa sistemaren arabera, eraginkortasuna oso ezberdina da. Hondakinen bereizketa nahitaezkoa den lekuetan askoz bilketa eraginkorragoa eta konpostatze tasa altuagoak lortzen dira. Bestalde, 2030erako ezingo da zabortegetara birziklatu

daitezkeen hondakin eraman. Hondakin organikoak nahitaez selektiboki bildu eta konpostatzearen bidez tratatzea izango da EBk ezarritako helburu hau betetzeko gakoetako bat. Gaur egun bereiztu gabe jasotzen dena tratamendu mekaniko-biologiko (TMB) bidez bereizten da. TMB hauetan berreskuratzen den hondakin organikoa tratamendu anaerobikoaren bidez konpostatzea lehenetsi dute Bizkaian eta Gipuzkoan, baina bide hau ez da eraginkorra. Konpostaren kalitatea askoz okerragoa da eta berreskuratzen ez den hondakin kopurua handiagoa izanik erraustegietara askoz hondakin gehiago eramateko bidea da, atzean dauden interesen erakusle.


2.2. Birziklapena

Azken urteetan Hego Euskal Herrian birziklapen kanpaina handiak egin dira. Datuek hobekuntza erakusten dute, baina ez nahikoa:

%	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Araba	29,25	28,88	32,51	36,94	33,7	34,02
Bizkaia	38,36	36,35	35,45	37,62	41,54	42,01
Gipuzkoa	41,8	31,24	35,06	34,12	32,23	35,1
Nafarroa	20,3	22,3	21,8	24,3	24,2	32

(Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua)

Nafarroak azken urteetan hobekuntza nabarmena izan du eta beste herrialdeen pare jarri da. Araba eta Bizkaia gorantzko joeran jarraitzen dute baina oso modu motelean. Gipuzkoaren kasua da adierazgarriena.



(Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua)

2013an zuen %41,3ko birziklapen tasatik %35era jaitsi baita. Hamarkada honen hasieran hondakin politika oso eraginkorra jarri zen martxan Gipuzkoan, erraustegia beharrezkoa ez zela erakutsi zuena. Baina Foru Aldundiko agintarien aldaketarekin batera, eginiko bidean atzera egin eta erraustegiaren aldeko plangintza batek birziklapen tasetan beherakada ekarri du. Berrito ere agerian geratu da birziklapena nahitaezko ezartzen denean kudeaketa eraginkorrago eta iraunkorragoa egin daitekeela. Baina ez da gaur egun Aldundien buruan dauden kudeaketa ereduak, erraustegia da beraien helburua. Nafarroan bestalde, Hondakin Lege anbiziotsua onartu zen 2018an, birziklapenean aurrerapauso handiak egiten zituena eta erraustetari atea isten ziona.

Momentuz Nafarroako Legea bertan behera utzi den arren, Estatuan prestatzen ari diren Hondakin Legeak ildo bera jarraituko du, Europako Zuzentarauak behartzen duena, eta berandu baino lehen

Hego Euskal Herriko instituzio guztiek aldaketak egin beharko dituzte beraien hondakinen kudeaketa ereduan.

2.3. Birziklapena + konpostatzea = Berreskuratzen den baliabidea

Datu hau aurreko bi tratamendu datuen batura da. Ekonomia zirkularra aipatzen dugunean hondakinak baliabideak direla esan ohi dugu eta datu honek baliabide gisa berreskuratuko den hondakin kopuru osoa adierazten du:

%	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Araba	29,25	31,29	35,56	40,95	36,82	38,38
Bizkaia	39,12	37,32	36,43	38,74	42,85	*43,76 (39,4)
Gipuzkoa	47,4	39,62	45,23	45,28	45,28	49,16
Nafarroa	29	32	33	37	37	46

(Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua)

Berriro ere, Gipuzkoa eta Nafarroa dira tasarik altuena dituztenak, konpostatze tasa altuagatik. Araba ez da oraindik %40ra iristen.

(*) Bizkaiari dagokionez, azalpen bat eman beharra dago birziklapen tasaren inguruan. Duela hilabete batzuk EHUKo irakaslea den eta hondakinen kudeaketa ikertzen duen Gorka Buenok, %43,76ko datuari zuzenketa bat egin zion. Bere hitzetan, “Bizkaian, kudeatutako hondakinen birziklatze-tasa % 40,17koa da, eta hondakinen % 43,8koa azken tratamenduetan. Hala ere, datu horietan 92.082 tona RCR (eraikuntzako eta eraisketako hondakinak) tratatu direla zenbatzen da Bizkaian. Oso kopuru handia da, eta ziur asko hiri hondakinak ez diren eraikuntzako eta eraisketako hondakinak barne hartzen ditu. Datu horrek zuzenketa bat eska lezake:

Urtean 92 mila tona horiek 81 kg/kap dira Bizkaian; Araban eta Gipuzkoan, berriz, batez beste 33 kg/kap sortzen da. Eusko Jaurlaritzaren estatistiken arabera, EAEn RCRen %76 birziklatzen da.

Bizkaian, batez beste, beste bi lurraldeen antzeko sorkuntza dagoela suposatzen badugu, Bizkaiko birziklapenari kendu behar diogu %76ko aldea (% 76 · (81-33) kg/kap), hau da, 36 kg/kap-ko.

Zuzenketa horrekin, birziklatze-tasa % 33,8koa izango litzateke kudeatutako hondakinen gainean, eta % 39,4koa azken tratamenduen gainean.” Bizkaiako Foru Aldundiak birziklapen tasa “makilatu” du beraz, benetan berreskuratzen den baliabide kopurua ez da %40ra iristen.

Europar Batasunak ezarri duen birziklapen helburua %55ekoa da 2025erako. Ikusi ditugun datuak eskuan, eta berreskuratzen den hondakin kopuru osoa kontuan hartuta, Gipuzkoa da helburu honetatik gertuen dagoena, eta Nafarroa ere bide onean ari da, %50era gerturatzen ari baitira. Araba eta Bizkaia ordea ez dira %40 iristen oraindik eta helburua lortzeko zailtasunak izango dituzte. Hala ere, lurralde guztiek beraien hondakin politika berrikusi beharko dute 2035erako ezarritako %65eko birziklapen tasara iristeko. Oraingo hondakinen kudeaketak ez du ahalbidetuko helburu horretara iristea.

2.4. Hiri hondakinen errausketaren bilakaera


Gaur egun hondakinen erraustegi bakarra dago martxan, Zabalgardi Bizkaian. Gipuzkoakoa eraikita dago jada baina oraindik ez da martxan jarri, nahiz eta Gipuzkoako hondakin batzuk Zabalgardiara eramaten diren, Foru Aldundiak zabortege gehienak itxi baititu. Zabortege bakarra dago irekita Gipuzkoan, Mutiloakoa, eta hiri hondakinez gain hondakin industrialak eta arriskutsuak ere jasotzen ditu.

Momentu honetan, Bizkaia da hondakin gehien errausten duena, nahiz eta Gipuzkoa eta Arabako hondakinak ere eramaten diren. Nafarroa da hondakinak erreustegira eramaten ez dituen bakarra, Hondakinen Legean ere horrela ezarri zuen, nahiz eta kogenerazio industrialari aterik ez dion isten. Olaztiko Portlanden hondakinak erretzeko saiakera ugari egon dira.

%	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Araba	0	3,72	4,68	5,08	5,29	6,11
Bizkaia	33,97	37,71	43,21	37,21	36,05	34,33
Gipuzkoa	0	7,19	6,64	6,67	5,16	5,38
Nafarroa	0	0	0	0	0	0

(Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua)

Datu hauetan garbi ikusten da erraustegiaren aldeko apustua egiten duenak birziklapenean esfortzu txikiagoa egiten duela, hondakinen heren batek Zabalgarbin bukatzen baitu. Aurretik aipatutako errefusaren karakterizazio ikerketek %15a soilik dela benetan errefusa erakusten dute, beraz gainontzeko %19a birziklatu daitekeen materiala da.



(Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua)

Grafiko honek herrialdeen artean dagoen izugarritzko aldea erakusten du. Hala ere, Gipuzkoako erraustegia martxan jarri orduko, erraustutako hondakin datuak gorantz nola egiten duten ikusiko da, eta tamalez birziklatu daitezkeen hondakinak ere erreko direla aurreikus dezakegu, hori baita erraustegien negozioak aurrera egiteko modu bakarra. Errefusa bakarrik erreko balute ez ziren errentagarriak izango.

Hondakinen kudeaketa iraunkorra egingo balitz erraustegirik ez zen beharko, birziklapenean eta konpostatzean eta beste hainbat alorretan (berrerabilpena, diseinuan aldaketak, lege murriztaileagoak,...) egingo balitz apustua birziklapen tasak %80tik gorakoak izan ahalko ziren eta zabortegira joango litzatekeen hondakina oso gutxi izango litzateke. Gipuzkoako hainbat herritan birziklapen tasa hauek lortu dira.

ELAk beti baztertu du hondakinen errausteta, badaudelako alternatiba iraunkorrak eta erraustegien atzean interes eta negozio izkutu izugarria dagoelako.


2.5. Zabortegietara eramandako hiri hondakinak

Gaur egun Hego Euskal Herriko hondakinen zati handienak zabortegietan bukatzen du. Hau aldatu beharreko ezinbesteko egoera da:

%	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Araba	70,75	64,99	59,76	53,97	57,9	55,51
Bizkaia	26,91	24,97	20,36	24,05	21,11	21,91
Gipuzkoa	52,6	53,19	48,13	48,05	49,56	45,46
Nafarroa	60	58	57	55	55	54

(Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua)

Bizkaia da zabortegira gutxien eramaten duena, baina horren ordeztu erraustegira eramaten du, are kaltegarriagoa den tratamendua. Araba eta Nafarroak hondakinen erdia baino gehiago eramaten du zabortegira, eta Gipuzkoa da erraustegirik gabe %50era iristen ez den bakarra.



(Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua)

Azken urteetan beherakada izan da zabortegira eramandako hondakinetan, eta datu hau positiboa da. Araba, Gipuzkoa eta Nafarroaren kasuan, birziklapena eta konpostatze datuak igo dira eta ez da ia errausten den hondakin kopurua igo. Nafarroako datua da azpimarragarriena, erraustekarik ez baitago eta kopuruak beherantz jarraitzen du.


Erraustegien alternatiba ahalik eta hondakin gutxien sortu, eta ahalik eta gehien konpostatu eta birziklatzea da, %80tik gorako tasak lortuz. Eta ondoren, hondakin hauek behar bezala tratatuta, zabortegi egokietara eramatea. Horrela, zabortegi hauek ez lituzkete orain ematen dituzten arazoak emango.

Europar Batasunak jarritako helburuak zorrotzak dira: ezingo da tratatu gabeko hondakinik eraman zabortegira, 2020rako hondakinen %35 gehienez eraman ahalko da eta 2035ean %10a gehienez. Bestalde, 2030erako ezingo da birziklagarria den hondakinik zabortegira eraman. Beraz, asko dago hobetzeko.

3. DATUAK HERRIALDEKA

3.1. Araba

Arabako hiri hondakinen tratamendua aztertuz, ikus dezakegu oraindik ere zabortegiaren menpekotasun izugarria duela, eta konpostatze eta birziklapen tasa nahiko eskasak dituela.




Birziklapen tasak hobetzeko bilketa selektiboa hobetu behar da. Araban 2018an hiri hondakinen %33a soilik biltzen zen bereiztuta. Organikoaren bilketa 2014an hasi zen eta ez da nahitaezkoa. Guzti honen ondorio dira datu eskasak. Agian gainontzeko herrialdeetan eman diren mobilizazioa eta presio soziala falta izateak eraman du Araba hondakinen kudeaketa iraunkorrean hain atzeratuta geratzera.

Europar Batasuneko 2025erako helburuak betetzea zaila izango da egoera honetan. Birziklapenean, organiko guztia bereizita jasotzean, eta zabortegira birziklagarriak diren materialik ez eramatean zailtasun handiak izango ditu ez badira berehalako hobekuntzak egiten.

3.2 Bizkaia

Bizkaia da hondakin gehien errausten duen herrialdea eta ondorioz zabortegiak gutxien erabiltzen dituen. Bizkaiko Foru Aldundiaren apustua Zabalgarbi da eta hondakinak behar dira erretzeko. Honek birziklapen eta konpostatze tasa eskasak eragiten ditu. Konpostatzea eta birziklapena bultzatzeko politika oso eskasak egiten baitira. Esaterako, organikoaren bilketa selektiboa ez da herri guztietara iristen.




Bilketa selektiboa %45,49an zegoen 2018an, oso eskasa birziklapen tasak hobetu nahi badira eta birziklapenari lehentasuna eman nahi bazaio erraustegiaren eta zabortegiaren aurretik. Bestalde aipatu behar da, txosten honetan jada azaldu dugun bezala, Bizkaiako Foru Aldundiak birziklapen tasak kalkulatzekoan hiri hondakinak ez direnak ere sartu dituela eta datu hau zuzenduz, Gorka Buenok egin duen estimazioaren arabera, Bizkaiako birziklapen tasa %39,4koa dela, eta ez datu ofizialetan agertzen den %43,76a.

Europar Batasunak zabortegiei dagozkien helburuak beteko ditu Bizkaiak, birziklatzen ez den guztia tratamendu mekaniko biologikoz (TMB) tratatzen baitu zabortegira eraman aurretik. Gainera, TMBtik ateratzen den kopuru handi bat erraustegira doa, beraz zabortegira eramaten den kopuruak dagoeneko 2025eko helburua bete du, eta ez dute arazorik izango hondakin gehiago erre eta 2035erako %10a baino gutxiago eramateko. Baina Europar Batasunak ezartzen dituen helburuak betetzeak ez du esan nahi Bizkaiako hondakinen kudeaketa iraunkorra denik, guztiz kontrakoa baizik. Erraustegian oinarritutako kudeaketa osasunarentzat eta ingurumenarentzat kaltegarria da.

3.3. Gipuzkoa

Gipuzkoako datuek ez dute herrialdean ematen den bi abiaduratako hondakinen kudeaketa erakusten. Badira mankomunitateak batezbesteko konpostatze eta birziklapen tasa baino altuagoak dituztenak eta baita batezbestekoaren oso behetik daudenak ere. Hala ere, batzbestekoa HEHko altuena da. Batez ere konpostatzean dago alde izugarria. Bilketa selektiboaren datuari dagokionez, oso esanguratsua da, 2018an %56,9a bildu zen bereiztuta eta mankomunitate batzuetan tasa hau %80tik gorakoa zen. Zabortegiari dagokionez, oraindik errefusa gehiena zabortegira doa, baina berriki martxan jarriko den erraustegiarekin datu hauek izugarritzko aldaketa izango dute: erraustegira doan hondakin kopurua asko igoko da eta zabortegira doazenak murriztuko dira.




Erraustegiak dituzten herrialdeetan ematen den beste tendentzia bat birziklapen tasaren beherakada izaten da. Honi gehitu behar zaio Gipuzkoako hainbat herritan hondakinak nahitaez bereiztetik aukerakoa izatera pasa izanak ere ez duela batere laguntzen. Dagoeneko 2013tik birziklapen tasek behera egin badute, erraustegiarekin are baxuagoak izateko arriskua dago.

Europar Batasuneko helburuak konpostatze eta birziklapenean oso gertu daude eta posible izango da betetzea, baldin eta aurreratzen dugun beherakada hori ematen ez bada. Eta zabortegiei dagokien helburuak ere beteko dira hondakinak erretzen hasten direnean, baina helburuak betetzeak ez du esan nahi hondakinen kudeaketa egokia denik, ingurumenarentzat eta osasunarentzat kalteak eragingo baititu erraustegian oinarrituriko kudeaketak.

3.4. Nafarroa

Nafarroako datuak asko hobetu dira azken urteetan. Esaterako, konpostatze datu oso onak dituzte, landa eremuko herri batzuetan hondakin organikoen bilketa eta konpostatzea %100era iritsi da. Birziklapen datua asko hobetu daiteke eta baita zabortegira eramaten den hondakin kopurua ere. Baina azpimarratzekoena Nafarroak Hondakin Legearen bitartez erraustegia alde batera utzi izana da.



(Iturria: Nafarroako Gobernua)

Nafarroak duen arazo handiena mankomunitate bakoitzak duen bilketa sistema ezberdina da. Badira mankomunitateak organikoa bereizten dutenak, baina beste batzuek beste hondakin batzuekin nahasita biltzen dute eta honek ondorengo tratamenduaren eraginkortasuna gutxitzen du. Bilketa sistema asimetriko honek batazbesteko birziklapen tasa baxua izatea ere eragiten du, nahastuta jasotako hondakinak tratamendu mekaniko biologiko bidez bereiztea ez baita eraginkorra. Gainera zabortegira doazen hondakin guztiak ez dira tratatuta eramaten Europar Batasunak exijitzen duen bezala.

Nafarroak eraginkortasuna erakusten du eremu eta mankomunitate batzuetan, baina beste batzuetan hobekuntza nabarmenak egin beharko dituzte, batez ere bilketa sisteman, birziklapen helburuak betetzeko, eta baita zabortegira zuzentzen den hondakin kopurua murrizteko ere.

4. Ondorioak eta proposamenak

4.1. Ondorioak

- Hondakinen sorreran ez da beherakadarik ematen. Instituzioen hondakinak murrizteko politikek ez dute funtzionatzen.
- Europar Batasunak hondakinak murrizteko ezarritako helburuak ez dira beteko sakoneko aldaketarik ez badago.
- Organikoa da sortzen den hiri hondakin kopuru osoaren %50 inguru, baina konpostatze tasa oso baxua da, konpostatzea izanik hondakin mota hauentzat tratamendu egokiena.
- Birziklapen tasak azken urteetan gorantz doaz, baina oraindik oso tasa eskasak ditugu. Ez da %40ra iristen (Bizkaiaren datua zuzenduta).
- Europar Batasunaren birziklapen helburua 2025erako %55a da eta oraindik oso urrun gaude.

- Bizkaiako hondakinen errauste tasa oso altua da, eta oraindik Gipuzkoan erraustegia martxan ez den arren, lanean hasi orduko Gipuzkoakoa ere maila horretara iritsiko da. Hondakinen kudeaketa iraunkorrerako tratamendu hau onartezina da. HEHn joera gorantz doa, Nafarroan ezik, errausketa alde batera uztea erabaki baitzen (nahiz eta Hondakinen Legea geldiarazita dagoen).
- Zabortegei dagokienez, oraindik hondakin kopuru handia jasotzen dute, sortutako hondakinen %50etik gorakoa, Bizkaian ezik erraustegira eramaten baitira birziklatzen ez diren hondakinak. Hala ere, kudeaketa iraunkor baten ikuspuntutik, erraustea baino onargarriagoa da hondakinak ahalik eta gehien konpostatu eta birziklatu ondoren, eta birziklatu ezin dena behar bezala tratatuta, zabortegei egokietara eramatea.
- Europar Batasunak helburu ezberdinak ditu ezarrita zabortegei begira: Batetik, ezingo da birziklatu daitezkeen hondakinik zabortegeira eraman. Helburu hau lortzetik oso urrun gaude ditugun birziklapen eta konpostatze tasak ikusita. Bestetik, sortutako hondakinen %10a besterik ezingo da eraman zabortegeira 2035an. Bizkaian eta Gipuzkoan erraustegiak eraiki dituzte zabortegeien alternatiba bezala, eta helburuak beteko dituzte, baina aukeratu duten hondakinen kudeaketa eredua ez da iraunkorra eta kaltegarria da ingurumena eta osasunarentzat.

4.2. Proposamenak

- Derrigorrezko bilketa selektiboa ezarri HEH osoan. Nahitaezko birziklapena da tasa onenak ematen dituen sistema, bai konpostatze tasan, bai birziklapen tasan.
- Bereizketa ongi egiteagatik, eta auto edo auzo konpostatzeagatik, pizgarriak eskaintzea hondakinen gaineko zergetan.
- Herrietako hondakinen zerga sortzen den hondakin kopuruaren arabera ordaintzea.
- Garbiguneak herrietara hurbiltzea.
- 5 edukiontzitik haratago joatea, herri guztietan birziklatzeko edukiontzi berriak ezarriz: arropak, erabilitako olioak, pixoialak, etxeko tresna txikiak,...
- Hondakin Legeak eta Hondakinen Plangintza berriak egitea zero zabor helburua eta hondakinen kudeaketa iraunkorra ardatz hartuta.
- Legez erraustegiak eta hondakinak industrian erre ahal izatea debekatzea.
- Produktuen diseinurako arau zorrotzak ezartzea: erabilera bakarreko produktuen debekua, plastikoen birziklagarritasuna, ontzien itzulketa sistemak, "obsolezentzia programatuaren" debekua,...
- Hondakinak murrizteko kontzientziazio kanpainak kontsumitzaileentzat: ez murrizteak dituen ondorio larriak azalduz, berrerabilpena sustatzeko ekintzak, bigarren eskuko azokak, tailerrak,...



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA